

BAIT-

Bait partikula, kasu guztietan, **aditzari lotuta** idatzi behar da: **bainaiz, baikara, baitoaz**, e.a., eta **EZ** *bai(t) naiz, *bai(t) gara, *bai(t) doaz, e.a.

Aldaketa fonologiko-grafikoa:

	Adibideak
Bait- + d- = bait-	Bait- + du = baitu
Bait- + n- = bain-	Bait- + naiz = bainaiz
Bait- + l- = bail-	Bait- + luke = bailuke
Bait- + g- = baik-	Bait- + gara = baikara
Bait- + h- = baih-	Bait- + haiz = baihaiz
Bait- + z- = baitz-	Bait- + zara = baitzara

Lotu perpaus biak "bait-" erabiliz, adibidean erakusten zaizun bezala:

Nire adiskideak beldur ziren / gaua oso iluna zen



BAIT+ZEN= BAITZEN

Nire adiskideak beldur ziren, gaua oso iluna baitzen

1. Neskaguna oso pozik jarri da / motxila berria erosi diot

2. Betaurrekoak jarri dizkizute / ez duzu ondo ikusten

3. Amak errieta egin dit / kamiseta zikindu zait

4. Ordenagailua kargatzen jarri dut/ bateriarik ez du

5. Barreka hasi zen / txiste bat kontatu genion

6. Ez dugu zaratarik egin nahi / maisua haserretuko da

7. Joan hadi lotara / berandu da

8. Ez gintuzun ikusi / klasean sartu ginen

9. Etxean pasatu zituzten oporrak / garai hartan ez zeukaten dirurik

10. Ez dut lana errepikatuko / 8 edo gehiago atera dut
